

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroa, 24 eguneko batez bestekoarekin, bere hornitzaileei epe barruan ordaintzen dien komunitate bakarra da

*Ministerioak jakitera eman duen txostenaren arabera, 73 eguneko Espainiako batez bestekoak, Foru Komunitatearen denbora hirukoizten du*


Miércoles, 26 de noviembre de 2014

Nafarroa bere hornitzaileei epearen barnean ordaintzen dien Foru Komunitate bakarra da, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak egindako txostenaren arabera. Txoten horretan azpimarratzen denez, Foru Komunitatea, 23,94 eguneko batez bestekoarekin, kontratuen legeak finkatutako mugaren 6,06 egun azpitik dago, hau da, Espainiako batez bestekoaren herena da (72,89 egunetan finkatuta dago).

Administrazio Zentralak administrazio publiko guztien (Estatua, Gizarte Segurantzza, Autonomia Erkidegoak, eta Toki Korporazioak) ordaintzeko batez besteko aldiaren datuak (PMP) lehen aldiz argitara eman ditu, eta datu horiek aldizkakoak izango dira hemendik aurrera, gardentasunaren printzipioa aplikatuz. Txostenaren helburua da, herritarrek eta hornitzaileek jakin dezaten erakunde bakoitzak legeak agindutako gehieneko epea betetzen duen edo ez. Administrazioek datu horien berri emateko betebeharra [uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan](#) finkatuta dago.

### Ministerioko datuak

Ministerioak jasotako iraileko datuen arabera, Nafarroaren ordainketa-aldiaren batez bestekoa 23,04 egunekoa da; indize horrek adierazten du, egiaz ordaindutako fakturen (36,31 eguneko batez bestekoa Foru Komunitatean) ordainketa-denboraren eta oraindik ordaintzeke dauden fakturen (22,11 egun) "antzinatasuna"-ren arteko



Foru Ogasunaren eraikina.

batez besteko haztatua

Zifra horien arabera, Nafarroa da fakturak 30 egunetan ordaintzen duen eskualde bakarra, eta Espainiako batez bestekoaren oso azpitik dago (72,89 egun). Foru Komunitatearen ondoren, ordaintzen puntualenak EAE (34,09 egun), Kanariak (37,38 egun) eta Galizia (41,34 egun) dira. Beste muturrean Aragoi dago; zordun handiena da, 107,53 eguneko batez bestekoarekin.

Ministerioaren txostenaren arabera, bederatzi autonomia erkidegok (Andaluzia, Balear Uharteak, Gaztela Mantxa, Katalunia, Aragoi, Extremadura, Murtziako Eskualdea eta Valentziako Erkidegoa) berankortasun-alorreko araudiaren atzerapen handieneko epea gaintzen dute; epe hori 30 egunekoa da kontratuen legean (hau da, faktura aurkezten denetik 60 egun) ezarritako epea amaitzen denetik (beste 30 egun).

Aurrekontuen Egonkortasun eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legearen arabera, betetzen ez duten administrazioek, alde batetik, hileroko hornitzaileei ordaintzeko erabiliko duen baliabideen berri emango dute; bestetik, bere PMPa murrizteko gastu, diru-sartze edo kobrantza eta ordainketak kudeatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte. Eta ez betetzen jarraituz gero, Estatua fakturen kargu egingo da, eraqindako lurralde-administrazioaren finantzaketa-sistematik atxikiz.